

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Azken datuaren datua
			*aurreko aldia	
<ul style="list-style-type: none">Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak gora egin du; aurreko hilabetean baino % 1,3 gehiago da orain. Guztira 194.231 pertsona daude. Erregistratutako langabeen kopurua jaitxi egin zen apirilean, eta orain 21.512 dira, martxoan baino -% 2,1 gutxiago.Kontratu-kopurua, urtetik urtera, % 8,2 igo da apirilean.Txikizkako merkataritzako salmentek 2024ko lehen hiruhilekoa -% 0,5eko jaitsierarekin itxi dute 2023ko aldi berberarekin erkatuta.Saltoki handietako eta elikagaien kateetako apirileko salmentek urte arteko -% 1,7ko beherakada nominala izan dute.Bilboko turismo-jarduerak urtetik urtera behera egin du, eta 178.781 ostatu-gau (-% 9,5) eta 94.501 sarrera (-% 6,7) erregistratu dira apirilean.Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmenta-indizea % 3,8 igo da urtearen lehenengo hiruhilekoan.Bilboko aireportuak 592.268 bidaiari jaso ditu apirilean; hortaz 60.772 bidaiari gehiago egon dira 2023ko hilabete berarekin alderatuta.Bilboko Portuko salgaien garraioa apirilean % 10,5 handitu da urte batetik bestera.	Lan-merkatua			
	Afiliatuak (kop.)	194.231	1,3*	ap.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.512	-2,1*	ap.
	Erregistratutako kontratuak	10.433	8,2	ap.
	Merkataritza			
	Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria)	108,6	-0,5	2024ko I. HH
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2022. urtea = 100eko oinarria)	94,7	-1,7	ap.
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	94.501	-6,7	ap.
	Ostatu-gauak (kop.)	178.781	-9,5	ap.
Ekonomia eta enpresa				
Zerbitzuak: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria)	112,6	3,8	2024ko I. HH	
Garraioa				
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	592.268	11,4	ap.	
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	3,1	10,5	ap.	

DATU BAT

+ % 11,4

Aireportuko bidaiariak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia-tasa

Apirilean 451 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera $-2,1\%$ gutxiago, eta 21.512 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean, $-2,1\%$ bi kasuetan. Datu absolutuetan, hilabetearen amaieran 198 gizon langabe eta 253 emakume langabe gutxiago egon dira.

Langabeziak kontuan hartutako adin-talde guztietan egin du behera. 16 eta 24 urtekoen artean, $-9,7\%$ eta 192 langabe gutxiago; 25 eta 44 urtekoen artean, $-2,2\%$ eta 171 gutxiago eta 45 urte edo gehiago dituztenen artean, $-0,7\%$ eta 88 langabe gutxiago.

Lehenengo sektorean izan ezik ($+1,7\%$), sektore guztietan jaitsi da langabezia: Industrian ($-2,0\%$ eta 30 langabe gutxiago), Eraikuntzan ($-2,4\%$ eta 33 langabe gutxiago) eta Zerbitzuetan ($-2,1\%$ eta 330 langabe gutxiago). Lehen enpleguaren bila ari direnen artean $-2,0\%$ jaitsi da langabezia (65 langabe gutxiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia-tasa $-2,4\%$ murriztu da aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Beherakadarik nabarieratzen Sevillan erregistratu da ($-3,2\%$), eta txikiena Valentzian ($-1,1\%$).

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabezia $-0,8\%$ jaitsi da. Langabeziak behera egin du Donostian ($-2,2\%$), Iruñean ($-0,8\%$) eta Gasteizen ($-0,2\%$).

Langabeziak behera egin du EAEn ($-1,7\%$). Hiletik hilera lurralde guztietan jaitsi da: Araban $-0,3\%$, Gipuzkoan $-1,9\%$ eta Bizkaian $-2,0\%$.

Afiliazioa

Apirilaren amaieran, Bilboko enpresetan 194.231 afiliatu zeuden, hau da, martxoan baino 2.528 enplegu gehiago, $1,3\%$ gehiago, alegia.

Araubideen arabera eta hiletik hilera, afiliazioak gora egin du araubide orokorrean, 2.570 enplegu gehiagorekin, eta autonomoen araubide berezian, 18 enplegu gehiagorekin. Langabeziak behera egin du etxeko langileen araubidean (51 enplegu galdu ditu) eta araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa), 9 afiliazio gutxiago izan baititu.

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Apirila	21.512 pertsona
	$2,1\%$ ▼
Emakumeak	$2,1\%$ ▼
Gizonak	$2,1\%$ ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$2,1\%$ ▼
G-5	$2,4\%$ ▼
G-3	$0,8\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Apirila	194.231 pertsona
	$1,3\%$ ▲
Araubide orokorra	$1,6\%$ ▲
Autonomoak	$0,1\%$ ▲
Etxeko Sistema Berezia	$0,8\%$ ▼
Beste batzuk	$1,2\%$ ▼

Sektoreka, afiliatuak areagotu dira Zerbitzuetan, 2.552 afiliatu gehiagorekin (% 1,5), eta Industrian, 3 afiliatu gehiagorekin (% 0,0); afiliatuak murriztu dira Eraikuntzan, -10 (-% 0,1) eta Lehen sektorean, -17 (-% 6,8).

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, igoerak nabarmentzen dira merkataritzan, osasunean, hezkuntzan eta administrazio-jardueretan (1.208, 878, 383 eta 336 gehiago, hurrenez hurren). Beherakadak erregistratu dira gizarte-zerbitzuetan, etxeko langileetan, ostalaritzan eta finantza eta aseguruetan (269, 51, 34 eta 29 gehiago, hurrenez hurren).

Urte artean enpleguak % 3,7ko gorakada izan du, hau da, 7.020 afiliatu gehiago.

Afiliazioak gora egin du araubide orokorrean eta itsasoko zein nekazaritzako araubide berezietan. Etxeko langileen araubidean -% 1,5 murriztu da eta autonomoen araubide berezian -% 0,8 egin du behera. Azken horrek 167 autonomo galdu ditu eta 29 hilabete dira jarraian behera egiten.

Sektoreka, Zerbitzuetan 6.909 afiliatu gehiago daude (% 4,1) eta Industrian 294 gehiago (% 3,4); Eraikuntzan, aldiz, 149 langile gutxiago daude (-% 1,6) eta Lehen sektorean 34 gutxiago (-% 12,8).

Hezkuntzan, Osasunean, Merkataritzan, Administrazio-jardueretan eta Ostalaritzan izandako hazkunde absolutuak nabarmentzen dira (1.355, 951, 884, 881 eta 811 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,3ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Valentzian izan ezik (-% 0,1), hiriburu guztietan egin du gora afiliazioak. Hazkunderik nabarmenena Bartzelonan eta Sevillan erregistratu da (% 0,4 hazi da bi kasuetan).

G-3ko hiriburuetan, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,3 igo da. Donostian % 0,3 igo da, Iruñean % 0,6 eta Gasteizen % 0,2.

EAEn, oro har, afiliatuak % 0,1 igo dira hilabete artean. Afiliazioak gora egin du hiru lurraldeetan: % 0,1 Gipuzkoan, % 0,1 Bizkaian eta % 0,3 Araban.

Kontratuak

Apirilean 10.433 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 8,2 eta 790 kontratu gehiago. Urtetik urtera areagotu egin dira emakumeei egindako kontratuak (184 gehiago) eta gizonei egindakoak ere bai (606 gehiago).

Adin-tarteen arabera, gazteenei egindako kontratuak igo dira, % 26,1 gehiago, hau da, 514 kontratu. Aitzitik, 25 eta 44 urte artekoen taldean kontratuak -% 3,9 areagotu dira (195 gehiago) eta 45 urtetik gorakoan artean -% 3 (81 gehiago egindako).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Apirila	194.231 pertsona
	% 1,3 ▲
Zerbitzuak	% 1,5 ▲
Eraikuntza	% 0,1 ▼
Industria	% 0,0 =
Lehen sektorea	% 6,8 ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 1,3 ▲
G-5	% 0,3 ▲
G-3	% 0,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Apirila	10.433 pertsona
	% 8,2 ▲
Emakumeak	% 3,3 ▲
Gizonak	% 14,7 ▲
Lehen sektorea	% 57,1 ▼
Industria	% 17,4 ▲
Eraikuntza	% 3,3 ▼
Zerbitzuak	% 8,3 ▲
Kontratutako pertsonak	% 7,1 ▲

Erregistratutako kontratuen % 49,8 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.197 kontratu) % 26,4, berriz, 45 urtetik gorakoei (2.754) eta gainerako % 23,8a, ordea, gazteenei (2.482).

Lehen sektoreko kontratuak murriztu egin dira (-% 57,1, hau da, 4 gutxiago) baita Eraikuntzako kontratuak ere (-% 3,3, hau da, 11 gutxiago). Gora egin dute industrian (% 17,4, hau da, 64 gehiago) eta Zerbitzuetan (% 8,3, hau da, 741 gehiago).

Apirileko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 75,2 izan dira. 7.734 pertsona kontratatu dira eta % 54,7 emakumeak dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,35 kontratu.

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza-salmentak

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko -% 0,5eko beherakada izan du salmentetan lehen hiruhilekoan. Gasolina-zerbitzuguneetako automobilgintzarako erregaien salmenta kontuan hartu gabe salmentak bere horretan mantendu dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, -% 0,1 jaitsi dira salmentak.

Sektoreen arabera, urtetik urtera behera egin dute elikadura-saltokietako salmentek (-% 12,6), bai eta gainerako produktuenak ere (-% 0,6). Elikadurari lotutako salmentek baino ez dute gora egin (% 0,8).

Bizkaiko Txikizkako merkataritzako sektoreko landunek % 2,4 egin dute gora aurreko urtearekin alderatuta.

EAEko salmentek behera egin dute -% 0,8. Lurraldeka, Gipuzkoan -% 0,9 egin dute behera, eta Araban -% 1,9.

Txikizkako merkataritza Bizkaia

Urte artekoa Δ

I hiruhilekoa	108,6 adierazle orokorra
	% 0,5 ▼
- Elikagaiak	% 0,8 ▲
- Gainerako produktuak	% 0,6 ▼
- Ibilgailuetarako erregaia	% 12,6 ▼
Gasolina-zerbitzugunerik gabe	% 0,0 =
Landunak	% 2,4 ▲

Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek, apirilean % 1,7 egin dute behera urte batetik bestera, lan-egutegi homogeneoari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,8 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 0,4 egin dute behera 2023ko apirilarekin alderatuta, eta gainerako produktuak maila berean mantendu dira (-% 3,9) aldi berean.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 0,8ko gorakada izan du. Oinarria aldatu ostean, landunek hogeita hemezortzi hilabete daramatzate gorabidean.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Apirila	94,7
Salmenta-indizea	% 1,7 ▼
- Elikadura	% 0,4 ▼
- Gainerako produktuak	% 3,9 ▼
Landunak	% 0,8 ▲

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Gipuzkoan (% 0,4); Araban, ordea, jaitsi egin dira (-% 1,3). EAEn, orokorrean, -% 1,0 egin dute behera.

Oharra: Eustatek saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmenta-indizearen oinarria aldatu du, eta 2022a hartu du erreferentzia-urtetzat.

EKONOMIA

Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 3,8 igo dira lehen hiruhilekoan eta hamabi hilabetez jarraian gora egin dute.

Jarduera-adar guztiak urte artean hazten dira: Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak % 4,8, Garraioa eta biltegiatzea % 4,0, Administrazio-jarduerak % 3,7, Informazioa eta komunikazioak % 3,6 eta Ostalaritza % 1,6.

Landunak % 0,8 ugarritu dira urtetik urtera.

Arabako beste zerbitzuen salmenten-indizeak % 0,2 egin du gora, Gipuzkoan % 1,0 eta EAEn % 2,4.

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 178.781 ostatu-gau erregistratu dira apirilean, hau da, % 9,5eko beherakada egon da urtetik urtera (18.663 ostatu-gau gutxiago).

Bidaiarien sarrerak -% 6,7 egin du behera. Estatuko bidaiarien kopuruak urtetik urtera -% 9,6 murriztu dira eta atzerritarrek -% 3,8. Azken horiek hilabete honetan hoteletan sartu diren bidaiari guztien % 52,4 izan dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 24,5), gero EAekoak (% 16,7), Kataluniakoak (% 12,5) eta Andaluziakoak (% 8,9). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 11,4), AEBak (% 10,5), Alemania (% 10,1), Erresuma Batua (% 8,7), Italia (% 7,1) eta Herbehereak (% 6,1).

Batez besteko egonaldiak behera egin du apirilean: bidaiari bakoitzeko 1,89 ostatu-gau.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 85,5 eurokoak dira, % 7,3 gehiago urte artean.

Merkatuko zerbitzuen salmentak. Bizkaia

Urte artekoa Δ

I. hiruhilekoa	112,6
Salmenta-indizea	% 3,8 \blacktriangle
- Garraioa eta biltegiatzea	% 4,0 \blacktriangle
- Ostalaritza	% 1,6 \blacktriangle
- Informazioa eta komunikazioak	% 3,6 \blacktriangle
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	% 4,8 \blacktriangle
- Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	% 3,7 \blacktriangle
Landunak	% 0,8 \blacktriangle

Hotel-gauak

Urte artekoa Δ

Apirila	178.781 ostatu-gau
	% 9,5 \blacktriangledown
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 9,1 \blacktriangledown
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 10,7 \blacktriangledown

Bidaiarien sarrera

Urte artekoa Δ

Apirila	94.501 sarrera
	% 6,7 \blacktriangledown
Nazionalak	% 9,6 \blacktriangledown
Atzerritarrek	% 3,8 \blacktriangledown

Batez besteko egonaldia

Urte artekoa Δ

Apirila	1,89 ostatu-gau/bidaiari
	% 3,1 \blacktriangledown

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 4,1 \blacktriangle
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 7,3 \blacktriangle

Apartamentu turistikoak: Apartamentu turistikoak enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatutako establezimenduak dira. Ez dira turismorako erabiltzeko etxebizitzak

Apirilean 19.893 ostatu-gau eta 9.228 sarrera erregistratu dira hirian eskainitako apartamentu turistikoetan, hau da, urtetik urtera % 4,9 eta % 17,3 igo dira, hurrenez hurren.

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 5,0 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 7,6) eta Donostian (% 5,8), eta Iruñean behera egin dute (-% 0,5). EAE osoan beherakada -% 3,5koa izan da aurreko urteko apirilaren aldean.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak bere horretan mantendu dira. Valentzian eta Sevillan ostatu-gauak gora egin dute (% 6,1 eta % 4,6, hurrenez hurren). Talde horretako gainerako hiriburuetan behera egin dute.

Establezimenduak: Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Apirila	19.893 ostatu-gau
	% 4,9 \blacktriangle
	9.228 sarrera
	% 17,3 \blacktriangle

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 9,5 \blacktriangledown
G-5	% 0,0 =
G-3	% 5,0 \blacktriangle

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuak 592.268 bidaiari izan ditu apirilean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 11,4 eta 60.772 bidaiari gehiago. Emaizta horiekin, gainera apirileko daturik onena lortu du, jarduera hasi zuenetik.

Bidaiarien kopuruak gora egin du hegaldi nazionaletan zein nazioartekoetan. Lehenengoetan 19.988 bidaiari gehiago izan dira urtetik urtera (% 6,3), eta bigarrenen artean 40.208 gehiago (% 19,0).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsierak eta irteerak batuta, 4.681 izan dira (% 4,8ko hazkundea), eta garraiatutako salgaiak ere igo egin dira (% 29,3).

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 10,9ko igoera kontabilizatu da. Zaragozan izan ezik (-% 7,8), taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Sevillan izan da hazkunderik nabarmenena (% 25,4), eta Bartzelonan eta Valentzian txikiena (% 9,5).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 0,9 handitu da. Iruñean % 17,8 egin du gora, eta Donostian % 7,1. Gasteizen -% 15,8 jaitsi

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Apirila	592.268 bidaiari
	% 11,4 \blacktriangle
Nazionalak	% 6,3 \blacktriangle
Nazioartekoak	% 19,0 \blacktriangle
Salgaiak (kg)	% 29,3 \blacktriangle
Hegaldiak	% 4,8 \blacktriangle

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 11,4 \blacktriangle
G-5	% 10,9 \blacktriangle
G-3	% 0,9 \blacktriangle

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 3,1 milioi tonako trafikoa izan du apirilean, hau da, % 10,5 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan apirilean kudeatutako salgaien % 61,6 izan da, eta urte arteko % 11,7ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak % 38,3 egin zuen gora (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra % 3,2.

Apirilean 6 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik apirilera, 11,6 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino % 9,8 gehiago.

Itsas garraioa Apirila

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa 3,1 milioi tona
% 10,5 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.512	-2,1*	2024ko apirila
Afiliatuak (kop.)**	194.231	1,3*	2024ko apirila
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	10.433	8,2	2024ko apirila
Biztanleria aktiboa (milakotan)	162,1	-7,1*	2024ko I. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	145,4	-9,3*	2024ko I. HH
Langabeak (milakotan)	16,7	19,3*	2024ko I. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	10,29	2,24 p.p.	2024ko I. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	115,7	0,8*	2024ko apirila
Afiliatuak**	20.079	6,4	2024ko apirila
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	108,6	-0,5	2024ko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	94,7	-1,7	2024ko apirila
Turismoa			
Bidaiarien sarrera	94.501	-6,7	2024ko apirila
Ostatu-gauak	178.781	-9,5	2024ko apirila
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiaria)	1,89	-3,1	2024ko apirila
Hoteletako okupazio-maila (%)	62,4	-2,8 p.p.	2024ko apirila
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	85,5	7,3	2024ko apirila
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd	117,6	0,4*	2023ko IV. HH
Industria-ekoizpena (indizea)**	121,1	0,3	2024ko mar.
Merkataritza-sozietate berriak	231	1,3	2024ko I. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	112,6	3,8	2024ko apirila
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.297,3	58,9	2024ko I. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2.912,8	5,8	2024ko I. HH
Garraioa			
Bidaiarien aire bidezko garraioa	592.268	11,4	2024ko apirila
Hegaldiak	4.681	4,8	2024ko apirila
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	3,1	10,5	2024ko apirila

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuegoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Afiliatuak




Erregistratutako langabezia-tasa




Txikizkako merkataritza-indizea



Beste zerbitzuen indizea



Aireportuko bidaiariak



Hotel-gauak

